



NAROA GOROSTIAGA

Konduak eta kontuak

Eskola garaian, matematikan, aritmetika, geometria, trigonometria eta algebra ez nituen oso gogoko, eta berantago kazetaritza lanetan hastearekin poztu nintzen, ustez eta *zientzia* horiek ez zitzaizkidala hain beharrezkoak izanen. Bainan ez nintzen ohartzen kazetaritza lanetan xifreek zenbateko garrantzia duten: estadistikak, sondaia, tendentziak, batuketak...

Beti uste izan dut matematika *zientzia exaktoa* zela; lanbideak erakutsi dit deus ez dagoela mundu honetan *exaktoa* denik. Eta harrigarria da asteburuko gertakariak nola iluntzen duten matematikaren izaera zehatz hori.

Euskal Departamenduaren aldeko manifestaldian, larunbatean, 12.500 pertsona kondatu zuten antolatzaileek, kondaketa sistema zorrotz batekin gainera. San Andres plazarat heltzearekin ageri zen sekulan halako jende metatzerik ez zuela lortu manifestaldi batekin Ipar Euskal herrian (azken hamarkadetan bederen).

Bainan zer zaila den kazetari lana, halako irudi baten aintzinean, 4.800 pertsona besterik ez daudela erran behar baldin bada. Poliziaren kondatzaileek ez omen baitute besterik atxeman. Zaila da ere telebista piztu eta une berean, kate batean entzutea 15.000 parte hartzaile dela eta bestean 5.000. Eta egunkari bereko kazetariak artikulua batetik besterat edo egun batetik besterat xifre desberdinak (eta hain desberdinak!) emaita.

Hobe dugu beraz, kondu guttiago eta kontu gehiago egitea...

Eldorado dos Carajas: duintasun kontua

• ALBERTO MARTINEZ •

[HEGOAREN SAREA GKEKO KIDEA]

Brasilen, Belem hirian, epaiketa bat hasi da, 1996ko apirilaren 17an Lurrik Gabekoen Mugimenduko 19 militante (MST) erail zituzten polizia militarren aurka. Mugimenduak argi utzi du ez dela desagertu kide horien erailketak eragindako samina. Era berean, ez da desagertu orduan gertatutakoek Brasil osoan piztutako haserrea. Polizien basakeriak astinduta, Brasilgo gizarte zatirik handienak bere burua ezagutu du lurrik gabekoen aurka erabilitako indarkerian, nekarazi inguruetak dramatikoki biztanle askok beren gainean daramatzate eta haien markak. Hauxe dio aspaldiko kantu batek: «... Ameriketako bideetan, hainbeste samin dago, hainbeste negar... gurutzeak daude errepide ertzean, harri odolez zikinduak... erotuta baleude bezala oihukatzen duten amak...». MSTko kideak PA-150 errepidean erail zituzten, eta Brasilen ugari dira hura bezalako errepideak: heriotza bideak dira, eta lurrik gabekoen, nekazarien, kaleko haurren, indioen, beltzen... kalbarioak. Nola edo hala, herri baten umiliazioaren drama izaten da beti. Horregatik, beharbada, MSTko arduradunek oraindik orain zabaldua-ko prentsa oharrean, besteak beste, honako hau diote: «Brasil mundu osoan futbolagatik, emakumeengatik... ezagutzen dute; bada garaia duintasunagatik ezaguna izateko!».

Herrien duintasuna

Eldorado dos Carajasko sarraskia Brasili ez ezik, herrien duintasunari ere badagokio, egunero leku askotan urratzen dutelako. Hildakoen gorpuek argazki batek bezain ongi islatzen dituzte politikarien hipokrisia, nekazaritza erreformari ekiteko duten interes falta, kriminal uniformedunen inpunitea eta aparatu judizialaren zati batek boteretsuekin duen konplizitatea.

Lehenik eta behin, herriak etengabe egindako presioagatik izan ez balitz, polizia hiltzaileak ez zituzketen inoiz epaituko, eta, kondenatzen ez badituzte ere, hori oso garrantzitsua da. Izan ere, boteretsuei nahikoa dela oihu egin behar zaie. Poliziari ere ozenki eta oso argi ohartarazi behar zaio nahikoa dela, eta bukatu dela txiroak hiltzea aberatsen pribilegioak babesteko, hala nola aitzakia gisa *zor den obediencia* erabiltzea, eta funtzionarioak baino ez direla esatea, hainbat zeregin duintasun hutsagatik baztertu egin behar direlako.

Justizia ere errudun

Baina, gainera, behin eta berrizko sarraskien errudun zati handi bat Justiziari egotzi behar zaio: luraren aldeko borroka orokorki kriminalizatu du —eta, hala, Konstituzioa bera urratu—, eta, horrenbestez, Brasilen giza eskubideak urratzea bultzatu du. Alde horretatik, ohikoak dira lurretatik aldegitako aginduak, eta erraztasun eta lastertasun susmagarriekin ematen dira, eta betiere lurjabe handien interesari jarraiz. Eta txarre-na da epaile horiek —askotan lursailen jabeak dira—, lurretatik *lehenbailehen* ateratzera behartzean, Polizia Militarra izugarrikeriak egitera bultzatzen dutela; polizia militarrek, gainera, interes beren zerbitzura daude, eta guztiz ziur daude ez zaiela inolako zigorririk ezarriko.

Gobernua eta Nekazaritza Erreforma

Baina, bereziki, Gobernua da egoera horien errudun nagusia, ez duelako Nekazaritza-Erreforma egin nahi, guztiz premiazkoa izan arren. Hala, Fernando Henrique Cardoso lehendakariak bankari eta latifundista bat izendatu zuen Laborantza eta Nekazaritza-Erreforma-ko buru, eta, era berean, landa-jabe handien eskuin muturreko pertsonaia garrantzitsu bati eman zion Kolonizazio eta Nekazaritza-Erreformarako Erakunde Nazional ezdeusaren ardura (INCRA). Hortaz, ezinbestekoa zen lurra-aren arazoak indarkeriari lotuta jarraitzea. Arrazoiak da gobernuentzat —nola Brasilgoentzat hala, oro har, Latinoamerika osokoentzat— gizarte desberdintasuna, lurgabezia, miseria, gosea eta sarraskiak kanpo-irudian eragina izan dezaketen neurrian baino ez direla garrantzitsuak. Praktikan, gobernuak —botere ekonomikoaren kudeatzaile hutsak— deliberatuta

daude nekazaritzaren erreforma ez egitera; izan ere, egingo balute, hankaz gora geratuko litzateke interes aitorre- zinez osatutako sare izugarri handi bat. Ez sinestekoa da latifundisten boterearen mendetako iraunkortasuna, lehen bezala orain ere herriko lur gehienek jabe

baitira, eta oraindik sinesgaitzagoa da botereak klase bizkarroi horri laguntzeko erakusten duen seta, itzal handieneko ahotsak bat baitatoz esatean nekazaritza erreformaren gaia, gaur egun, ez dela ba-

karrik ezker iraultzailearen aldarrikapen bat, baita sen on hutseko gai bat ere. Lurra izateko eskubidea oinarritzko eskubide bat da, eta, gainera, erabateko justizia egintza bat izateaz gain, razionaltasun ekonomiko handiko egintza bat ere bada, lursail txikien nekazaritzak sortzen duelako benetako aberastasuna laguntza tekniko eta finantzarioarekin, eta ez etxalde handiek, monolaborantza zorraz ordaintzeko eta sortutako kapitale-

kin espekulatzeak erabiltzen dutelako.

Horregatik, Gobernua da errudun nagusia, brasildar askok lurra izateko agertzen dituzten nahiak gutxietsi eta umiliatu egiten dituelako. Orain, boterea behartuta dago Belemgo epaiketa egitera, eta ahalik eta gehien luzatzen ahalegintzen ari da. Epaiketa Brasilgo historia judizialeko luzeena izango da, eta 27tik gora saio daude aurreikusita. MST prest dago lurralde nazional osoan epaiketaren urratsez urratseko segimendua egiteko. Beilak, eztabaidak, manifestazioak, sinadura bilketak, eserialdiak eta beste ekintza asko egingo ditu. Pazientzia handiz eta indarrarekin, Herri-Ministerioari presioa egingo dio akusatuak azkenean kondenatzen dituzten.

MSTren borroka bideak agerian uzten du lurrik gabekoen kausaren berezko justizia, baina ez hori bakarrik, maila etiko eta politikoan ezin eztabaidatuzko garaipen bat ere badelako. Oso arrazoi sendoak behar dira poliziaren balei aurre egiteko, eta ez Gobernuaren ez boteretsuen artean inork ere ez du ulertzen halako indarra, halako lur gosea izatea. Izan ere, aipatutakoontzat lurra gauza bat besterik ez da, erosten eta saltzen den zerbait, produkzio bitarteko bat, negozio bat, alegia. Baina nekazari-entzat, indioentzat, lurra guztia da. Lurra Ama da. Lurra Bizitza da. Lurra Duintasuna da, hots, Brasiliako politikariek ez duten zerbait. Nekazariak lurrean arrazoiak aurkitzen dituzte bizitzeko, borrokatzeko, bai eta hiltzeko ere. Lurrik gabekoek arrazoi dute! Lurrean daude milioika brasildarren duintasunaren, demokraziaren eta herritartasunaren sustraiak. Brasilgo gizarteak —bai eta geure artean bizi direnak ere— oihuka hori esaten ari zaie hango eta hemengo boteretsuei.

“
*Hildakoen gorpuek
ongi islatzen dituzte
kriminal
uniformedunen
inpunitatea eta
aparatu judizialak
boteretsuekin duen
konplizitatea*